

Itziar Zabala eskalatzailea Espainiako Kopako txapeldun

11. orrialdea

Gurasoak eta AK-37 kantuan

Igorreko Kultur Etxean, bagilaren 24an, "Geure Berbageie" proiektuaren inguruko kaleratu barri diran CD bi aurkeztuko dabez kantaldi bat emonez. *Umeen zentzune, etxean entzune* diskoan ume kantuak jasoten dira eta Guraso Alkartetako gurasoak kantuak dabez. *Hurrekoa Hurrean* diskoan batzean diran kantuak, barriz, Arratia Institutuko AK-37 taldeak kantuak ditu. 13. orrialdea



Aitzol Atutxa dimoztarra txapeldun 23 urte azpikoen mailan

11. orrialdea

begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

145

2011ko bagilaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Udako solstizioa izango dau gai aurtengo Areatzako Euskal Jaiak

Aurreko urteetan legez, Areatzako laugarren Euskal Jaiaren helburua gure ohiturak berreskuratzea da. Negu eta udagoieneko ohiturak egunera ekarri ostean, uda eta udakoak ekarteko erronka eukien billaroztarrak.

Hori dala eta, aurreko udako solstizioa eta San Juan gaua aukera parebakoa iruditu jakie aurtengo Euskal Jaiak akelarrearen inguruan ospatuteko. Aurtun, Areatzako Euskal Jaiak bagilaren 25ean izango da.

Gure memoria kolektiboan San Juan gaua, sua, sorginak eta akelarrea lotzean dira. Eta sorginak dirala eta, memoria historikoak inkisizioa eta sorgin izateagaitiko kondanak dakarkuz gogora. Hori antzeztuko dabe jantzi tradizionalakaz jantzitako herritarrek Euskal Jaiko azokan.

Azoka honetan ganera, bertako produktuak erosi, edota alde z aurretik Gorka Menendezegaz batutako bedarrakaz edabeak egin ahal izango dabez bertaraten diranak. Sasoi ilun hareetan, andrazkoak kanpotarrak txundituta ixten zituen burukoak be ikusteko aukerea egongo da Areatzan. Jaiaren bezperan, San Juan egunean, Toti Martinez de Lezeak akelarrearen inguruko sekretu guztiak kontauko ditu Udal Aretuan, arrastiko zazpiretan emongo dauan berbaldian. 12. orrialdea



Euskal jaiak Areatzan.

ARRATIA

Umeak kazetari diran ikasturteko azken Dunba zenbaki honetan

2010-2011 ikasturtean Arratiako 9 ikastetxeek parte bat izan dabe BEGITU euren gauzak kontetako. Proiektua Normalkuntzako aholkulariak planteau eben umeak, gurasoak eta irakasleak euskal presara hurreratzeko eta aisialdian euskera indartuteko. Orain, balantzea egiteko sasoi heldu da eta balorazio prozesua ipini dabe martxan Normalkuntzakoak. Hori dala eta, datu eta eretxiak jaso dabez helburuak bete diran jakiteko edo hurrengo ikasturteari begira ea ezer aldatu behar dan ebazteko. Irakasleen ustetan "ikasleak parte hartzeako eta motibetako aukera ezin hobea izan da", baina gurasoakana heltzeako ondino badago zeregina. 8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA

Sanjuanak eta sanpedroak

Udan, gure herri eta auzuneetan, beti dagoz jaiak nongura. Igorrekoak astegoi honetan amaitzen dira baina hamabostaldi honetan San Juan eta San Pedro jaiak dagoz. Sanjuanak Bedia eta Ubideko herriko jaiak dira, Sanpedroak osteran Arantzazu eta Dimakoak, baina bai sanjuanak bai sanpedroak hainbat auzunetan ospatuko dira. 5., 6. eta 7. orrialdeak

ARRATIA

Alkatetza alderdi bozkatuenarentzat

Bagilaren 11n egin ziran udalak osatzeko udal-batzarrak. 7 herritan (Arantzazu, Areatza, Bedia, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio) argi egoan nortzuk izango ziran alkateak gehiengo absolutua lortu ebalako herri horreetan alderdi bozkatuenak. Artea, Igorre eta Lemoan osteran paktoetarako aukerea egoan. Halanda be ez zan holakorik gertatu eta herri guztietan alderdi bozkatuenak lortu ditu alkateak. 7. orrialdea



KANTU HERRIKOIAK**BOTO BILA**

Barregurea jator
neure arpegira,
erdera zale horre
oraingo ardura.
Betî ondo aitzuta
euskoen lekura,
boto bile jatorkuz
txakurren antzera.

Eusko baserrietan
geunkagun bakia,
zugatz artean pozez
basetxe zuria.
Hantxe barruen egon
amona maitia,
ipuina ederra eukan
ezpanan barria.

Baina boto zalea
hor dator am[o]urruz,
bere ondoan doa
etxea hondatuz.
Bihotz barrena deuko
gorroto zakarruz,
da toki danak dira
negar eta alar[a]uz.

Zetan uste dozue
horreik datozala,
gizon horreik dakarde
zabalik sakela.
Baina eusko semea
ez kendu txapela,
boto kontuetan be
etzara epela.

Iturria: Patxi Bilbao Etxebarria (Dima 1903-Lemoa 1992).

1978an, Dimako Bargondia auzoan, Ruper Lekuek jasoa.

Boto bila

♩ = 120

Ba - rre gu - re - a ja - tort neu - re ar - pe -
gi - ra, er - de - ra za - le ho - rre in o - rain - go ar -
du - ra. Be - ti on - do aiz - tu - ta eus - ko - en le -
ku - ra, bo - to bi - le ja - tor - kuz txa - ku - rren an -
tze - ra.

TELEFONO INTERESGARRIAK**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
Bagilaren 13tik 19ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

Bagilaren 20tik 26ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

Bagilaren 27tik garagarriaren 3ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

Garagarriaren 4tik 10era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 631 56 30
Igorre: 94 600 74 63
Lemoa: 94 631 31 16
Ubidia: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubidia: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etik 22:30era 30 minuturo.

Ubidia-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urtearak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urtearak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubidia

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidia: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefona: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
www.begitu.org
Erredakzino burua: Beatriz Azpuri. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.
Erredakzino taldea: Oihane Barrenetxea, Urtzi Barrenetxea, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.
Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.
Publizitatea: Inigo Iruarrizaga. Telefona: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubidia).
Tiradea: 6.400 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.400 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bilboko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Presako bako mobimentua

Madriko Sol plazako kanpaldian 10 egunez hango asanblada eta ekin-tzetan parte hartu ostean, politikoa zer dan, eta gaur egun zelan egiten daben behar eta zelan antolatuten diran mobimentu edo alderdi politikoak ulertzean dagoala jakoa uste dot.

Madriko asanbladetan, Maiatzak 15 mobimentuak, bai forma aldetik bai edukien aldetik interes handiko politika egiteko modu bat dabil eregiten. Formea asanblada eta kalea dira. Eta edukia, interes edota burruka eta lan desbardinak dituen personeren asanbladetan alkartzean sortuten dira. Holan, diskursoak sortu, mezuak kontrolatu eta eretxiak eta espazioak baldintzatzen dituen potere taldeak, asanbladea kotrajartzen jakie.

Mobimentu honen lan eta eztabaida denporak be, presako barik behar egiteko premia adierazoten dabe, erantzun bat-bateko eta barriak emoten saiatu barik. Batez be, eztabaidak eta proposamenak sortzean eta kaletik alkarregaz ikasten egin dogu behar kanpaldiotan parte hartu dogunok.

Mobimentu hau presarik bako mobimentua da. Berbarik altuena, ebatzi indartsuena, edo erantzun sinplistik gailentzen ez diran espazioak sortzea da bere helburua. Horregaitik, hausnarketea, berbak eta lanean diharduen gorputzen horizontaltal-

sunak lantzean dira.

Eta hau guztiau, kalean, plazan, lurrean, batzeako, eztabaidatzeko eta konpartiduteko behar dan apurragaz.

Madriko, baina baita be Bilboko Arriagan kanpaldiak egin dituen Maiatzak 15 mobimentua, aberri eta mugen ganetik dagoan mobimentua da. Hau da, herri bakoitzean erak eta lehenetsunak landuko dira prozesu propio batez, baina sistema ekonomikoaren eraginak, zorixarrez bardinak dira leku guztietan. Eta uste dot Europa edo mundu mailako mobimentu honetan, Euskal Herriak be badaukala zer esan eta zer egin. Izan be, gurean be sistemaren eraginak agerian dagoz: Garoña, Abiadura Handiko Trenak, super portua, nekazaritzaren egoera, urietako ordenantzak eta matxismoa, sistemaren eragin horreetako batzuk aitatzearen.

Estrategikoki interesgarria da beste herrietako mobimentuak bat egitea bankuen diktadurearen kontra eta sistema sozial baten alde. Nahiz eta akaso hemen orain proiektu sozial propioak lantzeako esparrua egon.

OIHANE RUIZ MENENDEZ
DESZAKUNDEA BILBO

Duintasuna izan!

Mundu orden berrirantz goaz ziztu bizian eliteak markautako baldosa beilegien bidetik, globalizazio kapi-

talisteak klase politikoa iruntzi dau, komunikabideak masa kontroletako ingeniariak arma zehatzak dira eta antzezpen honetan gehiengoak zapaltzaileen panpinak baino ez dira, sindikatuak bane. Horregaitik krisi hau ez da bakarrik finantzarioa, besteak beste, politikoa, etikoa, kulturala, espirituala eta soziala be bada.

Mobimentu global honek ez dakar ezer baririk, beti egon da erresistentzia aktibo bat esparru desbardinetan. Aldatu dan gauza bakarra herritarren indignazio maila da. Honek danok batzeako indarra emon deusku (eta Internetek bidea), pasibidatetik aktibo izatera bultzatu gaitu, desbardinak gara ideologia edo afinidade politikoz baina gauza baten ados gagoz: Hau aldatu egin behar da orain!

Sol plazako batzarretan danok izan dogu eskubidea gure eretxia emoteko eta modu honetan oinarizko hamasei aldarrikapen adostu doguz. Hona hemen adibide batzuk:

-Hauteskunde legearen aldaketea: aulki eta boto kopuruen arteko proportzionaltasuna.

-Boloniar Planaren Legea, Goi Hezkuntzako Europar Espazioa, Atzeritarren legea eta "Sinde" legearen indargabetzea.

-Klase politikoen lan baldintzen aldaketea, biziarteko soldata barik; programa eta proposamen politikoak lotesleak izatea.

-Zerrendak ustelkeria leporatutako pertsoez garbi egotea.

-Banku eta finantza merkaduen inguruko neurriak. Aberastasuna interes orokorraren aldekoa (konstituzinoko 128. art). NDF (FMI) eta EBZren (BCE) poterearen murrizketak, estatuak erreskatatutako bankuen berehalako nazionalizazioa.

-Demokrazian zuzeneko parte hartze aktiboa; herriaren abotsa komunikabideetara iristea.

-Gustu militarrik murriztea, arma lantegiak berehala zarratutea. Estaduko segurtasun gorputzen ganeko kontrola areagotzea.

-Alderdi politikoen kontuetan eta euren finantziazioan gardentasun osoa.

Sol-etik bagoaz, akanpadak bere funtzioa bete daualako, baina komisinoetan bananduta lanean jarraituten dogu. Informatu zaituz Interneten, eta etori iraultzara!

ATTAC

ERETXIA

ARRATIA BIZIRIK ETA ILINTIA ALKARTEA

Arratiako basogintza haretxaren eremuan

Bagilaren 4an, 15 lagun batu ginan Ilintia eta Arratia Bizirik alkarteak antolatu eben martxan. Betiko egiturak apurtu eta hitzaldia eta mendimartxea batutea izan zan asmoa, inguruko haretxaren eremuan zein baso mota daukagun ikusi eta ikasteko, parte-hartzaile bakoxtari banatu jakon triptikoaren laguntzeagaz. Igorreko industrialdearen ondoko haretxetatik urten eta Arteako industrialdean geratuten diran haresti orbanetan amaitu genduan buelta. Bidean hainbat geldialdi egin genduzan, bertako basoari, pinu landaketei eta lurzoruari begirada bat botaz eta azalpenak jasoz. Martxa bat hamaiketako barik egitea ez dauanez, San Migel Txiki ermitan hamaiketako ederragaz gozatu genduan, hausnarketarako eta eztabaidarako tartea aprobetxautu.

Gaur egun, Arratiako paisajearen osagaiarik hedatuena pinu-sailak dira, eremuaren % 51 (10.400 ha). Ukaezinekoa da, pinuari lotutako etekin ekonomikoak izan dauan garrantzia azken bi belaunaldiotan baseritarrentzat. Otera, pinuaren erabilereari buruz ingurumen-eztabaida luzea izan da gure artean, baina ondino ez da lortu pinuari egotzitako onura (ekonomikoa) eta kalteen (ekologikoa, bioaniztasuna, kulturala...) artean ez orekarik, ez konponbi-

derik ezta adostasunik be.

Jarduera honen ondorio ekologiko nagusia harestien murriztea izan da, eta honek bere eragina euki dau bertako ekosisteman. Azkenengo baso-inbentarioaren arabera (2005. urtea) 165 ha haretx baino ez dagoz Arratia osoan, nahiz eta eremuaren azaleratik ia % 60 (12.000 ha) egokiak izan haretxaren garapenerako.

Egungo basogintza krisi larri baten aurrean egonda, behartuta gagoz etorkizuneko basogintzari buruzko hausnarketea egitera, eta orain arte izan dogun basogintza ereduak zalantzan ipintera.

Arratia Bizirik alkarteak gura bertako basoak, bertako animaliak... bizirik bertako herritarrek. Herritarren ongizatea topetako badagoz alternatibak eta gure eretxiz etekin ekonomikoa ezin da erizpide bakarra izan. Haretxaren izan behar leuken eremuan, basoak gura doguzan lekuan, ekoizpenerako pinu landaketak dira nagusi; eta horrek harritu eta larritu egin gaitu. Administrazio publikoak bultzatu dauan ereduak ez dau funtzionetan, pinuaren monokultiboaren bidea agortuta dago jada.

Aukerak badagoz, badago etekin ekonomikoaz gain biodibersidadeari eta gizakien ongizateari begiratzen deusan alternatibarik. Horregaitik, ume, gazte, heldu zein nagusi animau basoari begirada bat botaten; animau horren inguruan pentsetan eta hausnartuten. Holan, danon artean askok amestuten dogun bestelako paisaje eukitea posible izango da.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Burruntzalia



Sukaldaritzan erabiltzen dan koilara handi hau metalezkoa izaten da, izen berak esaten deusku moduan: burruinezko/burruinezko edo burdinezko zalia (euskera batuan, zalia da). Arratian, sei era honeetara jaso dogu: burruuntzalia, burruuntzalia, burduntzalia, burrutzalia, burruuntzalia eta burduntzalia.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tomea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez, euskeraz eginez

Batzon gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL COOPERATIVE

LUMATUTEN

XABIER PEREZ
DE MENDIOLA

Psikosia

Psikosia, Hitchcock-en pelikula ez ezik, errealidadeagaz kontaktua galduteari deritxo. Haluzinazioak eta delirioak (idea aldaezin faltsuak) dira sintoma psikotiko klasikoak.

Azkenaldian, emoten dau gure osasuna etenbarik dagoala arriskuan: behi zoroak, txarri izurria, hegazti gripea, epidemiak, pandemiak, intoxikazioak, agente kartzinogenoak nahinon, eta abar. Mehatxu konstante horren atzeneko adibidea Alemania iparraldean. Bertan, *Escherichia coli* bakterioaren aldaera latz batek, hainbat hildako eta pepino espainolen estigmatizazioa eragin dau. Ez da fikzioa, ez eta bromarako gaia. Arrisku horreek existidu, existiduten dira, biktimak horren froga. Edozelan be, sarritan, gertaera horreen ondotik biztuten dan alarma larregizkoa da.

Komunikabideetako titular katastrofistak, Osasunaren Mundu Erakundearen iragarpen apokaliptikoak eta agintarien hanka-sartzeak dira neurribako osasun alarmearen etiologia nagusia. Herritarroi informazio argia eta gomendio praktikoak eskeini beharrea, heriotzen zifrak eta datu nahasgarriak baino ez deuskuez helarazoten eta. Adibidez, *E. coli*-aren transmisioa geldituarazoteko hain garrantzitsuak diran oinarriko neurri higienikoen barri emon barik, foku posiblearen inguruan bueltaka dabiz. Desinformazioaren ondoriozko ezjakintasunak, gizartea zalantza eta ikaraz kutsatuten dau, eta horreek be, germenak ez izan arren, ondoeza sortuten dabe.

Ondoez horrek itsuturik, gure perzeptzio eta pentsamentuen ebaluazio okerra burututen dogu. Beste modu batera esanda, ez garanez kapaz egoerearen benetako larritasuna neurtuteko, gure osasuna hilteko arriskuan dagoala sinistuten dogu, eta horrek, ebatzi estremistak hartutera garoaz: hainbat alemaniarrek, kasurako, barazki gordinak eta txorrotako ura konsumiduteari itxi deusie *E. coli*-agaz infektatiko ikaraz. Azken baten, alarmak eta astrapalak, osasun arazo konkretuak baino sufrimendu handiagoa eragin leikie: gizartea errealidadearen interpretazio ezegokiak egitera bultzatu, eta horrenbestez, psikosia, psikosi kolektiboa sortuz.

ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

Azukerea

Batzuetan berak hartzean dau korreoa; beste batzuetan andreak. Gaur berari tokatu jako; bera da arrastiz beharrea dabilena eta andrea goizez dabilena.

Kafea berotan ipini, portalera bajatu eta korreoa atera dau buzoitik. Sutean, posta mahaian jauten itxi ostean sutatik atera dau kafea. Ez deutso azukeririk bota. Aspaldian amaitu zan azkenengo azukere boltsea eta ez dabe oraindino besterik erosi. Korreoa betikoa: propaganda eta fakturak. Orri koloretuetakoak dira propaganda eta azal zuri eta makina letraz idatzitakoak fakturak. Bakarera geratu da bi multzo horreetatik kanpo. Gizonak besteetatik banandu eta beragana hurbildu dau. Letra borobildu eta urdinez dagoz idatzita helbidea eta andreak izen-abizenak. Buelta eman deutso azalari: ez dago bidaltzailearen daturik. Kafeari azken tragoa emon eta azazkalaz irekigunean zirikitu bat zabaltzen ahaleginu da papera harrotu

barik. Kanpoan ez bada, barruan behar dau andreaki posta arrunta bialdu deutsonaren izena. Tip, tip, tip. Hiru-lau aldiz ahaleginu da kolaren lana antzutzen papera erasan barik, baina bosgarren ahaleginerako ura irakiten jartzea erabagi dau.

Errazagoa izan da uragaz. Ur lurrunduak bigundu egin dau kolearen indarra, zabaldu zarratutako irekigunea. Bi orri egon dira barruan bi aldeetatik idatzita tinta urdinez eta letra borobilduz. Irakurri, azalean sartu eta ile-lehorgailuz hezetasunak zimurtutako papera sikatu dau. Gero, kola hartu eta irekigunea itsatsi dau hasieran egon dan moduan itxeko.

Pozik dago egindako beharragaz, birikiak hanpatuta. Ez da inoiz abila izan esku lanetan. Oraingoan baina, fallo bakoa da egin dauana. Irekigunearen azpialdean dagoen kola arrastoa da barritasun bakarra. Eta hori gutun askok eukiten dabe. Baita bere izenean heltzean diren batzuk be.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Antza, idatzi bako gizarte arau batek dino seme-alabak euki barri daukiezan gurasoak ezin dabela parterik hartu jaietan; emoten dau batera ibilteko eurentzako leku bakarra baraketako giro azukeratsuzaratsua dala.

Baina Igorreko jai-batzordea herritarren parte-hartzea bultzatuteko asmoagaz dabil, aspaldiko urteetan, idea barriak bata bestearen ostean proposatuten. Halan, aurtengo barrikuntzetako batek gurasoak euki dau zerikusia: karro karrerea.

Hor ikusten doguz gurasoen arreta arpegiak epailearen instrukzioak entzuten; umeak, oster, ez daukie hurrengo minutuetan biziko daben bertigoaren barri. Josemari Atutxa dimoztarra (eskoietik hasita, bigarrena) izan da lehenengo edizino irabazlea. Etxera eroan dauan saria umearentzako fardel-moltzoa izan da.

Gurasoak be herrietako jaietan modu aktiboan parte hartu leikielako beste adibide bat dogu; izan be, danon artean egindako jaiak danontzako izaten dira.



**Gorosti**
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisci.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aidedko
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39

Nalego Zerbaita MD
R.P.S. 25/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA

Isaki
Martin Gorostiza

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28
e-mail: margoiza@euskonet.net

UBIDE

Arbola eta sua sanjuanetan

Bereziak dira Ubideko sanjuanak. Hemen txupina bota beharrean, plazan arbola altxatuz emoten deusee hasiera jaiak.



Ubide goitik ikusita.

Erredakzioa

Eszenalekuaren montajea eta desmontajea be jai giroan egin eta jai egitarau barruan sartzean da. Pelota partiduen artean, zesta puntako txapelketa bat be bada.

BAGILAK 17, 18 eta 19

Eszenaleku eta txosnearen montajea.

BAGILAK 23, eguena

17:30ean, Arbola bila joateko zitea.

19:00etan, Arbola altxatuz jaien hasiera. Txokolatea.

19:45ean, Janari eta edari truke herrikoia.

22:30ean, Sua eta akelarrea.

23:00etan, Diskojantza.

BAGILAK 24, barikua

12:00etan, Kalejirea trikiagaz. Meza ostean, barauskarria.

17:50ean, Pelota partiduak.

20:00etan, Play Back herritarra.

23:00etan, Kontzertuak HARRESIAN ZULO eta CODIGO HABANA.

BAGILAK 25, zapatua

11:30ean, Guraso eta umeak antolatutako festa.

18:00etan, Zesta punta kaiola txapelketea.

21:30ean, Herri afaria.

23:00etan, Erromeria HAIZAMA taldeagaz.

BAGILAK 26, domekea

11:00etan, Puzgari eta jolasak.

18:00etan, Euskal jantzak ARANTZARTE taldeagaz.

19:30ean, MOLTO VIVACE (orkestina).

GARAGARRILAK 1 eta 2

Eszenalekua eta txosnearen desmontajea eta afaria.

DIMA

29an hasten dira sanpedroak

Dimako San Pedro jaiak aurten bagilaren 29tik garagarrilaren 3ra badira be, aurreko domekan Artisau eta Nekazal Produktuen azokeagaz hasiko dira dimoztarrak jai giroan murgiltzen.

Erredakzioa

Herri kirolak, bertso saioak eta kontzertuak ez dira faltako eda de guztietako jenteak ondo pasetako.

BAGILAK 26, domekea

10:00etan, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokea.

12:30ean, Arratiako txistulariak.

BAGILAK 29, eguaztena

12:00etan, Mezea.

13:00etan, 85 urtetik gorakoai omenaldia.

14:00etan, 65 urtetik gorakoen-tzako bazkaria.

16:30ean, Trikitilariak.

BAGILAK 30, eguena

20:00etan, Tortilla, makailau eta tostada txapelketetan jatekoak aurkeztu.

23:00etan, Erromeria LOTXO taldeagaz.

GARAGARRILAK 1, barikua

11:00etan, Umeentzako puzgari, ohe elastiko, zezen mekaniko eta jolasak.

17:30ean, Herriko sanpedroetako esku pelota txapelketako finalak.

19:00etan, Open 2011.

19:30ean, Kale animazioa eta poteoa.

23:00etan, Kontzertuak BIDEAN GALDUTA, LARREGI eta GORA HERRIA taldeakaz.



Jaietako kartela.

GARAGARRILAK 2, zapatua

11:00etan, Umeentzako jolasak.

14:00etan, Herri bazkaria.

17:30ean, Bits jaia.

18:30ean, Herri kirolak.

23:00etan, Kontzertuak NIK KHAOS, PORKO BRAVO, GOSE eta BIZARDUNAK taldeakaz.

00:00etan, Euskal preso eta errepresaliumen aldeko ekitaldia.

GARAGARRILAK 3, domekea

11:00etan, Umeentzako jolasak.

13:00etan, Jantza saioa GAZTE BARRI jantza taldearen eskutik.

19:30ean, Bertso saioa: Beñat Gaztelumendi, Amaia Agirre, Xabier Silveira eta Jone Uria.

21:00etan, antzerkia *Mediopelo*.

IGORRE

Kuba eta Igorreko liburutegia hartu-emonetan

Erredakzioa

Kubako Servando Cabrera Moreno museo eta liburutegiko boletinean, "gure liburutegiarentzako fondo bariak" titulupean honela dino "Euskal Herri bialduta, gure liburutegiak Igorreko Udaleko Kultura Sailak emondako opari handi bat jaso dau. Oparia Euskal Herriko artearen inguruko liburu sorta bat da".

Liburu honeen kalidadea eta garrantzia goraiatu ostean, eskerrak emoten deusee "Oihane Goioaga kultura zinegotziari eta, bereziki, Igorreko Udal Liburutegiko Irune Elexpe Arranz funtzionariari, hau hurrengo kolaborazioetarako lehenengo pausua baino ez daiten izan desiratuz".

ARRATIA

Liburua argitaratu dau Arratiako eleizeak

Jon Urutxurtu

Joan dan apirlean, Igorren Joxe Arregi teologoak emondako hitzaldia batzean dauan liburua argitaratu dau Arratiako eleizeak "Jesusen Berri Ona XXI. menderako" izenburupean. Liburua 48 orrialdekoa da eta hitzaldian bertan egin ziran argazkiak dakar. Hiru eurotan eskuratu daiteke Arratiako parrokitan.

Ez da hau Arratiako eleizeak kaleratzen dauan lehen liburua, aurretiaz "Gurasoekin otoitzean" lana argitaratu eban eta.

UBIDE



Jai batzordeak eta Ubideko Udalak

Gora Ubideko jaiak!



EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK

ETXERA

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

DIMA



Jai batzordeak eta Dimako Udalak

Gora San Pedroak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

begitu

amata ubide zerbeto

ARKITEKTOA

Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

BEDIA

Sardinak janez hasiko dabez bediaztarrak herriko jaiak

Txupina San Juan bezperan bota orduko, jai hasita egongo da Bedian. Batez be umeai jagokienean. Izan be, jaien hasiera ofiziala zortziretan izango da, baina umeak lauretatik erabili ahal izango dabez puzgarriak. Gauerdian San Juan sua, urteko gauberik laburrenean iluntasunik ez egoteko.

Erredakzioa

BAGILAK 19, domekea

10:00etatik 14:30era, XI. Eskulangintza eta Elikagaien azokea.

BAGILAK 23, eguena, San Juan bezpera

16:00etatik 19:30era, Umeen-tzako puzgarriak.

18:00etatik 21:00etara, Tailerrak eta jokoak.

20:00etan, Jaien hasierako txupina trikitiaz eta dultzainaz alaituta. Sardina jana.

22:00etan, XAIBOR DJ.

00:00etan, San Juan sua.

BAGILAK 24, barikua, San Juan eguna

11:30ean, Meza nagusia eta ostean trikikalejirea.

17:00etan, XXV. Briska txapelketea. Bikoteko kide bat Bediakoa behintzat.

18:00etan, Tortilla txapelketarako izen emotea.

19:00etan, Ugel txapelketea.

19:30ean, Tortillen aurkezpena.

20:00etan, Frontenis finala.

23:00etan, Kontzertuak 12 KM eta KALTE. Ostean erromeria DRINDOTS taldeagaz.

BAGILAK 25, zapatua

12:00etan, IV. Paella lehiaketarako izen emotea, Tirituk antolatuta.

14:00etan, Paellak aurkeztu.

17:00etan, Koadrilen arteko III. olimpiadak. Tirituk antolatuta.

17:00etan, Mus txapelketea Batzokiak antolatuta.

20:00etan, Futbito txapelketea.

23:00etan, Kontzertua GALBIDEA eta LARREGI. Ostean erromeria TRIKIZIO taldeagaz.

BAGILAK 26, domekea

12:15ean, Kalejirea gaiteruakaz.

12:30ean, Eskupelota partiduak: umeak.

18:00etan, Eskupelota partiduak: gazteak eta nagusiak.

19:00etan, Usansoloko OIN-ARIN jantza taldearen ekitaldia. Erdu erropa tradizionalakaz.

20:00etan, Herri erromeria OIN-ARIN jantza taldeagaz.

Jaiari amaierera emoteko txokolatea.

ARRATIA

"Urkiolara joan, zapatak urrutu..."

Bagilaren 18an egongo da Arratiatik Urkiolarako errogatibea.

Jon Urutxurtu

"... Aita San Antoniok barriak egingo ditu" dino koplak zahar-rak, eta oinetakoak urrutzeko aukerea izango dabe Arratiako oinezko errogatiban parte hartu gura dabenak.

Bagilaren 18an, zapatuan, egongo da Urkiolara, Paduako San Antonioren santutegira errogatibea. Tradizioari jarraituz, San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiarren errogatiba eguna. Azken urteotan, Arratiako parrokiak guztiak aldi berean joaten dira Urkiolara, bailarako abadeakaz batera eta horretarako, aurtan Mankomunitadeak autobus bat ipiniko dau. Ganera, Zeanuritik Urkiolara oinezko ibilaldi gidatua be presatu dabe.

Egitaraua

Aurtengo errogatibea "Bakea, lana, osasuna" lemapean egongo da, eta goiburua horren sinbolo legez arbola bat landatuko da Urkiolan.

Hamaikak baino lehentxuego, eta Areatzako tirikitilarien doinuak alaituta, ondoetorria emongo jakie oinez, autobusean edo euren kotxeetan Urkiolara hurreratutako arratiar erromesai. Ostean, letaniak abestuz sartuko dira erromesak Urkiolako Santutegira, 11:00etan Arratiako abadeak emongo daben mezea ospatzeko. Mezearen hasieran, oraintsu arte bikario izan dan Jose Luis Iza zeanuriztar abadeari oparitu bat emongo jako; meza ostean, arbolea sartuko dan tokiraino zuzenduko dira erromesak eta landatze ekitaldiagaz egitarauari amaierera emongo jako. Autobusean etorritakoak, 13:00etan itzuliko dira Arratiara.



Urkiolako santutegia.

Oinezko ibilaldi gidatua

Aurtengo errogatibearen nobedadea Arratiatik Urkiolara joateko prestatu dan ibilaldi gidatua izango da: Zeanuritik abiatuta, Arratia eta Urkiola lotzean dauzan bide klasikoetako bat ezagutze-

ra emonez. Urteerea Zeanuriko plazan izango da 07:45ean eta Soloetatik gora, Makaztura igon eta Zumeltza eta Arkaolatik igaroz Urkiolara helduko dira ibiltariak. Arrastian, 15:00etan Urkiolatik aterako dira Zeanurira itzultzeko.

Autobusaren eta oinezko ibilaldiaren ordutegiak

09:00etan, Bedian.
09:05ean, Lemoan.
09:10ean, Diman.
09:15ean, Igorren.
09:16ean, Arantzazun.
09:20ean, Artean.
09:25ean, Areatzan.
09:30ean, Zeanurin (plazan).
09:31n, Zeanurin (Altustan).

Itzulera Urkiolatik: 13:00etan.

Oinezko ibilaldiaren ordutegia

07:45ean, Urteerea Zeanuriko plazan.
15:00etan, Itzulerako urteerea Urkiolan.
Informazio gehiago: Jose Mari Kortazar 688 683 101.

IGORRE

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskeraz inskribidu ahal dira

Erredakzioa

Igorreko Bake Epaitegiko erregistro liburueta idazpenak eta ziurtagiriak aukeraturako hizkuntza ofizialean egin daitezke daborduko, hau da euskeraz zein gazteleraz.

Nahiz eta Espainiako Estaduko Erregistroen Legeak

2005ean aitortu eban euskeraz erregistretako eskubidea, orain arte ezinezkoa izan da jaiotzak, ezkontzak edo heriotzak euskeraz inskribidutea. Ezintasun horren arrazoia sare informatiko bateratu baten falta izan da, bake-epaitegiak sare informatiko horretatik kanpo egon diranez, lehendik erabiltzen ziran erregis-

tro liburuak erabili behar izan dabez eta ezinezkoa izan da hizkuntza aukeraketea baliatu idazpenetan.

Gurasoen burruka

Hizkuntza Eskubideen Behatkiagaz batera, Igorreko herritar-rak, gurasoak batez be, urteak deroez jaiotzak euskeraz erregis-

trau ahal izateko oztopoak salatzan eta hainbat eskaera bideratu dira hizkuntza eskubidearen urraketa hori salatzeko. Ganera, Igorreko Udalak be herritarren hizkuntza eskubideak errespetatze aldera, egoerari irtenbidea emoteko eskatu dau behin baino gehiagotan.

"Azkenean, legeak aitortzen dauan eskubidea gauzatu ahal da, erregistro liburueta idazpenak eta ziurtagiriak aukeraturako hizkuntza ofizialean egitea posible da eta Igorreko Bake Epaitegian" dino Amaia Arauzo euskera teknikariak.



Bake Epaitegia.

ZEBERIO

Saioa Zubiaur libre dago

Erredakzioa

Bagilaren 7an, aske itxi eben Saioa Zubiaur Zeberiokoa. Zubiaur Alacanteko gartzelan egon da abenduaren 16an atxilotu ebenetik Segiko partaide eta buruzagi izatearen akusazino-pean. Atxilotutakoan torturak salatu zituan zeberioztarrak. Kartzelatik fiantza pagauta urten zan. Hurrengo egunean Zeberion ondo etoria egin eutsan herriko jentek.

Ondo etoria Zeberioko plazan
Arrastiko 20:00etan egin eutsien

harrera ekitaldian 150 lagun inguru batu ziran. Honeek udal hauteskundeetan ostean Euskal Herrian sortu dan "ziklo politiko barriari eta ilusino kolektiboari" egin eutsien erreferentzia. Saioa Zubiaurrek bere aldetik eskerrak emon eutsen han bildutakoai emondako harrereagaitik. Ondo etorri ekitaldian ez ziran faltau txalapartea, bertsoak eta kantak.

Bagilaren 19an, Zubialden sardina jana eta musikea egongo da arrastiko 20:00etan Zubiaurren omenez.

IGORRE

Jaiak aurrera doaz

Erredakzioa

Igorreko jaien lehenengo aste-goiena joan dan arren oraindino hainbat ekintzagaz gozatuteko aukerea daukie igorretarrak.

BAGILAK 16, eguena

18:00etan, Triki-poteoa txosnetan hasita.

21:00etan, Herri Afaria eta karaokea Olabarriko aterpean.

Ostean, erromeria JAINAGA ETA NARBAIZA taldeagaz txosna gunean.

BAGILAK 17, barikua

17:00etan, Tortilla eta Makailao txapelketea Olabarriko zirkuituan.

19:00etan, Tortilla eta Makailao txapelketearen aurkezpena.

22:00etan, Kontzertuak: BIDEAN GALDUTA, LARREGI eta NIK KHAOS. Bitartean, PLAY BACK txapelketea eta ostean ZIRKINIK BEZ taldeagaz erromeria.

BAGILAK 18, zapatua

13:00etan I. Mendi Bizikleta Laster-

keta Herrikoia Orobin.

16:30ean Igorreko Jaietako XXI.

Pelota txapelketea.

17:30ean, Umore Rallya txosna gunean hasita.

18:00etan, KIKI, KOKO eta MOKO pailazoak.

22:00etan, Kontzertuak: MATERIA GRIS, KORUMBA eta GOVERNORS. Ostean, IZARGI taldeagaz erromeria.

BAGILAK 19, domekea, jubila- duen eguna

12:00etan, Mezea.

14:00etan, Jubiladuen bazkaria eskolatan aterpean eta Karta txapelketa: mus, tute eta briska jubiladuen tabernan.

16:30ean, Gazteen arteko olinpiadak: Jolasak Kultur Etxe aurrean.

19:30ean, JOKALDI Kultur Etxeko plazan eta Bals lehiaketea.

Bitartean, Koadrilen arteko olinpiaden sari banaketea eta jaietako erri-fen zozketea.

20:00etan, BEINKE!ren eskutik jaien amaierako txokolate jana.

ARRATIA

Dima, Igorre, Lemoa eta Zeberion alkate barriak

Erredakzioa

Hauteskundeetako emaitzak argi itxi eben nortzuk izango ziran alkate Arantzazu, Areatza, Bedia, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberion. Artean, Igorren eta Lemoan, barriz, aukerak egon dira, boto gehien jaso dituan alderdikoa ez izateko alkatea,

errepresentazioa lortu daben alderdien artean akordioak egin izan ezkerro. Baina ez da holan izan eta herri guztietan alkatetza boto gehien jaso dituan alderdiearentzat izan da. Horren ondorioz, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeberioko alkateak lehenengo aldiz heldu dira alkatetzara. Lemoa eta Zeberioko kasuetan

ganera inoz ez da egon EAJ-PNVkoa ez dan alkaterik.

Alkateak

Honeek dira hurrengo lau urteotan alkate izango diranak: Arantzazu, Begoña Llano (EAJ-PNV); Areatzan, Josu Basozabal (EAJ-PNV); Artean, Alberto Etxebarria (EAJ-PNV), Bedia, Aitor Sorriketa (EAJ-PNV); Diman, Rafael Ugalde (Bildu); Igorren Beinat Anzola (Bildu); Lemoan, Saioa Elejabarrieta (Bildu); Ubiden, Joxan Pagola (Alkarlanien); Zeanurin Izaskun Sagarna (EAJ-PNV) eta Zeberion Ana Belen Alberdi (Bildu).

ARANTZAZU

San Juan sua eta sanpedroak

Erredakzioa

Arantzazuko jaiak sanpedroak eta sanfaustoak izan arren, San Juan bezperan tradizioak aginduten dauan moduan herritarrek sua biztuko dabe "zapoak eta subeak erre, artoak eta gariak" gordetzeko. Sanpedroetarako, musikea, jana eta txapelketa antolatu dabez Arantzazukoak.

BAGILAK 23, eguena

19:00etan, Sardina jana.

21:00etan, San Juan sua.

BAGILAK 29, eguaztena

11:30ean, Txupina.

12:00etan, Mezea.

12:30ean, Trikitilariak.

13:30ean, Jubiladuentzako barauskarria.

GARAGARRILAK 1, barikua

10:00etan, Umeentzako jolasak eta tailerrak.

13:00etan, Bitsaren jaia sopesa bategaz.

17:00etan, Umeentzako antzerkia.

18:00etan, Txokolatea.

19:00etan, Disko Txiki: umeen-

tzako jantzaldia.

20:45ean, Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Bilbao Musikako akordeoi taldeak kontzertua eskeiniko dabe Arantzazuko eleizan.

GARAGARRILAK 2, zapatua

11:00etan, Futbitoia.

12:30ean, Trikitilariak.

14:30ean, Paella eta Tortilla lehiaketak.

17:00etan, Frontenis eta esku pelota txapelketa.

20:00etan, Talo jana.

22:00etan, Erromeria Jokaldi taldeagaz.

GARAGARRILAK 3, domekea

16:00etan, Mus eta Briska txapelketa.

ARRATIA

Trikitixearen soinua auzuneetan be entzungo da

Erredakzioa

Sanjuanak eta sanpedroak leku askotan ospatuten dira gunean. Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanuriko auzune batzuetan, barbarako. Sanjuanak, Zeanuriko Alzuagan, Dimako Oban eta Igorreko San Juan auzunean, hain zuzen. Sanpedroak, barriz, Lemoako Elorriagan eta Zeanuriko Undurragan.

Igorreko San Juan auzunean, San Juan bezperan txupina botaz hasiko dira jaiak. Ostean, sardina jana eta San Juan sua egingo dabe auzokoak. Hurrengo egunean eta astegienean be, trikitixearen soinua eta lagunarteko mokautxuak ez dira faltauko sanjuanak ospatuteko.

Eta beste auzuneetan be somatzen da jai giroa. Alzuagako sanjuanetako eta Elorriagako sanpedroetako egitarauak dakarguz hona.

Alzuagako (Zeanuri) sanjuanak

BAGILAK 23, eguena

15:00etan, Jaiak hasiera emoteko txupina.

21:00etan, sardina eta txokolate jana.

BAGILAK 24, barikua

12:00etan, Meza nagusia eta ostean barauskarria.

BAGILAK 25, zapatua

21:00etan, Herri afaria. Izena zortzi egun lehenago emon behar joko auzuneko bateri. Ostean erromeria.

BAGILAK 26, domekea

12:00etan, Meza eta barauskarria.

13:00etan, Jantzariak, bertso Saioa eta erriaren zozketea.

18:00etan, Bola joko sailkapena eta umeen jolasak.

Jaien amaierera.

Elorriagako (Lemoa) sanpedroak

San Pedro eguna hilaren 29an izan arren, 25ean ospatuko da jaiak, zapatua izanda jente gehiagok parte hartzeako.

BAGILAK 25, zapatua

12:30ean, Meza.

13:00etan, Barauskarria.

13:15ean, Herri kirolak.

14:00etan, Ugel txapelketea.

14:00etan, Dardo txapelketea umeentzat.

14:00etan, Paella lehiaketea.

17:00etan, Umeentzako jolasak eta tailerrak.

17:30ean, Mus txapelketea.

19:00etan, Bola txapelketea.

20:00etan, Txixi-burduntzia.



Trikitixea.



IGORRE
Jai batzordeak eta
Igorreko Udalak

Gora San Antonioak!

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ**

DUNBA

Dunbak ikasleak euskerazko prensara hurreratu dituan baloretako sasoiak da

Zenbaki honetan Areatzako eskoleak idatzi dau ikasturte honetako azkenengo Dunba. Arratiako 9 ikastetxek 2010-2011 ikasturtean BEGITU aldizkarian sail bat euki dabe euren intereseko gauzak kontetako.



Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak.

Erredakzioa

"Euskerazko prensara ikasleak eta haren gurusoak hurreratzeko eroan dogu aurrera ataza hau" azaldu deusie BEGITURI Arratiako Normalkuntza Aholkulariak eta Dunbaren koordinatzaileak. Orain, balorazio prozesua ipini dabe martxan. Datu eta eretxiak jaso ostean, hausnarketea egin beharra

dago helburuak bete diran jakiteko edo hurrengo ikasturteari begira ea ezer aldatu behar dan ebazteko.

Normalkuntzak sortutako, eskualdeko ikastetxeetan gela-argazki proiektuaren barruko ataza bat izan da Dunba. Ikusita, euskerazko komunikazio arloan ikasleak hutsuneak dituela eta prentsa irakurteko orduan, erderazko prentsa jotzen ebela, Zertu Kultur

Elkartegaz akordio batera heldu ziran 2010-2011 ikasturtean, tarte bat izateko BEGITU aldizkarian ikasleen lanak argitaratzeko. Ikasleak gelan irakasleagaz batera testua sortu, ikastetxea inplikau, etxean gurusoak irakurri... "Helburua, ikasle, guruso eta irakasleak euskerazko prentsa hurreratu, aisialdian euskerazko komunikazioa bultzatzea da"

azaldu deusie BEGITURI eskole-tako teknikariak.

Ikasleen euskerearen erabilera gelatik kanpo neurtzen

Izenak berak aditzera emoten dauan moduan, ikasgelaren argazki moduko bat egiteko tresna da gela-argazkia. Ikasleen berba jarduna zelangoa dan azaldu gura dau gela-argazki proiektuak. "Gelako ikasleak beren jardun-gune nagusietan eta rol-harreman gehienetan, batez be euskeraz, batez be erderaz edo bietara egiten daben azaltzen dau gela-argazkiak. Ikasleen berba jardunaren azterketea egiten dau, aldakuntza-iturri nagusien eta kasuan kasuko rol-hartu-emon esanguratsuenen arabera" azaltzen dau Normalkuntzak bere blogean.

Gela barruan irakasteredu berbera izan arren, ikasgelatik kanpo euskerea ala erderean erabilteak sano argazki diferentea eragiten dau.

Arratia eta Gorbeialdean, 5. eta 6. LHko mailetan eta DBHko 2. mailetan, urte birik behin neurtu dabez ikasleen gela-argazkian emondako erantzunak. Eta ondorioen artean, honako hau: "komunikazioaren esparrura goazenean, puntuazioak jaisten doaz, telefono bidezko jardunetan, umeak zein nerabeak, euskeraz egiten dabe berba baina jada euskerearen nagusitasuna ez da hain agerikoa, prentsa idatziaren irakurketan edota internetez dabizanetan argi eta garbi erdera da nagusi. Bardin gertatzen da irratia edo telebista entzun edo ikusten

"Ikasleak parte hartzeako eta motibetako aukera ezin hobea izan da, gura eben gaiaren ganean berba egiteko eta eretxiak eta esperientziak kontetako"

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatekoa, herrikola

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre
Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilegok, Hezkuntza zikloak

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igoerre

Tfnoa: 94 631 80 04

ellaURI HOTEL
Naturazko ospitalea

Landa Turismoa
Erpinak Zerbitzuak

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com



dabizanean".

Horregaitik, hain zuzen be, ipini dabe abian Dunba esperientzia: ea Dunbako ataltxuaren laguntzeagaz, ikasleak eta euren gurasoak BEGITU Aldizkaria alkarregaz irakurtzera animetan dituen.

Horretan, bizitzako beste arlo gehienetan gertatzen dan modura, gurasoak umeen ereduak diralako: "Etxean entzune umeen zentzune" edo zer ikusi haxe ikasi.

Dunbaren erabilerearen balorazinarako datuak

Ikasturtea amaitzean dagoanean, proiektuko koordinatzaileak datuak jaso dabez helburuak bete diran jakiteko. Datuak ikusita, ikasleak eta irakasleak inplikau arren, gurasoanako helburuak ez dirala bete dirudi.

Ikastetxeak emondako informazioaren arabera, ikastetxearen parte hartzeari jagokonean, tutore batek eta gela batek hartu dabe parte gehienetan (% 67). Ha ta guzti be, ikastetxe bitan klaustroak eta gela guztiak parte hartu dabe (% 22).

Prensaren irakurketea bultzatzea zanez sail honen helburu nagusia, balorazioa egiteko artikuluen irakurketea neurtu dabe proiektuaren bultzatzaileak. Bost ikastetxetan eurek idatzitako artikulua baino ez dabez irakurri (% 56) eta beste lauretan (% 44) Dunba Sailean agertutako artikulua guztiak irakurri

dabez: eurek egindakoak zein beste ikastetxeetan egindakoak.

Artikuluen oihartzunari jagokonean, kasu gehienetan ikastetxeko beste gela edo irakasleen eretxiak jaso ditue (% 67), kasu baten beste ikastetxeetako ikasle edo irakasleena be bai (% 11), baina gurasoen eretxiak ez dabez jaso ezta kasu baten be ez. Dana dala, umeak gurasoak irakurten dabela eurek idatzitakoa badakie ikastetxe batzuetan (% 33), heren baten. Beste heren batek ez deusela gurasoai ezer zabaldu adierazo dau eta gurasoak proiektuan inpliketako beharrezkoa dala plana pausuz pausu zehaztea pentsetan dabe ikastetxeen % 22k.

Datorren ikasturteari begira

Datorren ikasturteari begira, esperientzia honeri irakasleak ikusten deusien alde onak eta zailtasunak batu ditue partaideak.

Alde onen artean ikastetxeetan "ikasleak parte hartzeako eta motibetako aukera ezin hobea izan da, gura eben gaiaren ganean berba egiteko eta eretxiak eta esperientziak kontetako. Aukera ona emoten dau ikastetxeetako proiektu eta lanak ezagutarazteko. Ikasleak inpliketako lanak helburu bat dauka, aldizkari baten agertzea, eta hau beti da erakargarria bai ikasleentzat baita familientzat be" dinoe.

Ganera talde lana bultzatzen dauala, ikasleak lanak hobeto aurkezten saiatzen dirala eta gurasoak euskerazko irakurketan inpliketan dirala pentsetan dabe. Ha ta guzti be, "oraindino denpora gehiago emon behar jako gehienbat gurasoan heltzeako".

Zailtasunak be topau dabez irakasleak hau martxan ipintean. Tartean, "guraso erdaldunakana hurreratzea. Horretarako, ikastetxeak denpora gehiago behar dabe hau gaintzeko tresnak garatzeko. Eta klaustroan zabaltzea eta honen laguntza jasotea be beharrezkoa da".

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Sistak kontrolatzeko arretak eta mantentze lanak

Igorriko Industriak, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
619 736 616
48140 Igorri Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

Tel. 94 629 60 06 • email: info@ararotz.com

ARA OTZ
Landerrien O Jabetzen!

Parroja Ugareta 2 de - ADAR Dena - Tolosa www.ararotz.com

OPEL

ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estuñofos, 15
48330 LEIVOA (Bizkaia)
Telfs. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

JANDONIZ
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

HERRIKO BENTA

HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz

EUSKARAZKO HEDABIDE EZ PUBLIKOAK

Ametzola Landetxea

Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

bbk

expert ARRATIA

E posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

MARATOI TXIKIA

Arratiako Maratoi Txikia

Erredakzioa

Bagilaren 5ean, eguzkia lagun, Arratiako XXXII. Maratoi Txikia jokatu zan korrikalari askoren partaidetzeagaz. Edade guztietako arratiarrak hartu eben parte eta Gotzon Solaegik gizonetako eta Mari Carmen Garciak andrazkoetan irabazi eben aurtengo edizinoako Maratoi Txikia. Kategoriaz kategoriaz honeexek izan ziran lehenak helmugaratuten.

Nagusiak:

Honeek 11 km. egin zituen Zea-nuritik Igorrera.

1900tik 1961era jaiotakoak:

Aitor Intxaurrea eta Mari Carmen Garcia.

1962tik 1971ra jaiotakoak:

Jose Lagardesa Diego.

1972tik 1993ra:

Gotzon Solaegi eta Miren Ozerin-

jauregi.

1994tik 1998ra jaiotakoak:

Artea-Igorre ibilbidea egin eben honeek. Gizonetakoetan sailkapen bi egin ziran.

1994tik 96ra: Jon Ugutz.

1997tik 98ra: Egoitz Aretxaga.

Andrazkoeten irabazlea Laida Perez de Mendiola izan zan.

1999tik 2002ra jaiotakoak:

Dima-Igorre egin eben edade honetako umeak eta irabazleak hurrengoak izan ziran:

1999tik 2000era: Paul Nuñez eta Iraitz Madariaga.

2000tik 2002ra: Manuel Basilio eta Matxalen Malaxetxebarria.

2003an jaiotakoak eta gazte-agoak

Txikerrenak Igorretako eskoletako zirkuitua egin eben eta euren edadeko lehenak honeek izan ziran: Unai Zulueta (Lemoa) eta Irati Artaraz (Bedia).

Alex Etxebarria (Igorre) eta Iratxe Murgoitio (Arantzazu).

Martxel Erdozia (Artea) eta Maddi Aldape (Igorre).

Urko Irueta (Areatza) eta Uxue Odriozola (Igorre).

Imanol Agirre (Igorre) eta Jone Emaldi (Igorre).



Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktuak
Lehendakari Agirre, 31 bis. - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 62 34 - Fax: 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ekin s.l.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETA
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMITU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZADOK
Iturricz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Enxeka
GARRAIOAK
Mugikorra 629 465 335
Arantzazu ezp. 12 LEBON
Tfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Pinturas Arantia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

AHOLKULARITZA:
LEGI-LAN ARLOAN ✓
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN ✓
ONDARIN HIGEEZINEN ASIGURUTAN ✓
Sabino Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 94 01 - 48140 IGORRE

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

ESKALADEA

Itziar Zabala Espainiako eskalada Kopako txapelduna

Itziar Zabala eskalatzaile dimoztarrak Espainiako Kopa irabazi eban maiatzaren 29an, 18 urte azpiko kategorian.

Erredakzioa

Zabalak Espainiako Kopan bere nagusitasuna erakutsi eban proba guztiak irabaziz.

Hiru probak osatu eben Kopa txapelketea. Lehenengoa, Arriondasen (Asturias) izan zan maiatzaren lehenengo astegoienean; bigarrena, Ponferradan (Leon) maiatzaren 21 eta 22an; eta azkena Bartzelonan maiatzaren 28 eta 29ko astegoienean. Hirurak irabazi eta Espainiako Kopa lortu eban dimoztarrak. Nira Carceres eta Izarbe Perez be igon

ziran podium-era.

Espainiako Txapelketea 25ean Gijonen

Eskalatzaile dimoztarrak Espainiako Txapelketea jokatuko dau hilaren 25 eta 26ko astegoienean Gijonen (Asturias). Espainiako Txapelketea be irabazteko aukerak baditu Itziar Zabalak. "Ondo sentiduten naz, sasoi. Baina txapelketan edozer gertatu daiteke, holakoak izaten dira txapelketak eta. Dana dala, gogotsu noa, irabazteko gogoz" azaldu deutso BEGITURI.



Itziar Zabala podiumean.

AIZKOREA

Aitzol Atutxa txapeldun 23 urte azpikoen mailan

Erredakzioa

Txapel bi lortzeako aukerea baeban be, bategaz konformau behar izan da aizkolari dimoztarrak. Ziordian bagilaren 5ean lortu eban Eusko Label banakako txapelketako 23 urte azpikoen txapela, baina ez urrezko mailakoa. Azpeitian bagilaren 12an jokatu zan Urrezko mailako finalera heldu zan arren, Lopez Azpilikueta nagusitu jakon dimoztarrari. Finalean, Lopez Azpilikueta 28 minutu eta 54 segundo behar izan zituan beharra amaituteko eta Atutxak, barriz, 32 minutu eta 19 segundo.

23 urte azpikoen kategorian txapeldun

Eusko Label banakako txapelketako 23 urte azpikoen mailan, txapela lortu eban Aitzol Atutxak Ziordian,

Oihan Larretxeari gailendu ostean. Final haretan, 15 minutu eta 24 segundo behar izan ebazan arratiarrak beharra amaituteko, nafarrak 18 minutu behar izan zituan bitartean.



Aitzol Atutxa.

Arbaso artetik DIMAKO baztarrak ezetu

historia, mitologia, natura...



- **Gidaria: Angel Larrea**
- **Eguna: Bagilaren 25ean, zapatua 09:00etan Dimako plazan**
- **15:00etan bazkaria egongo da ibilaldira datozenantzat**



publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
**94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com

EUSKAL JAIA

Inkisizinoa, bedarrak eta akelarrea Areatzan

Aurreko urteetan egindakoari jarraituz, Areatzan ohiturak berreskuratzeko asmoz, laugarren Euskal Jaia ospatuko da bagilaren 25ean.

Erredakzioa

Negu eta udako ohiturak ekarri ostean, udabari eta udakoak ekarteko erronka eukien antolatzaileak. Hori dala eta, solstizioa eta San Juan gaua aprobetxatu dabe Areatzako 4. Euskal Jaia Akelarrearen inguruan ospatuteko. Gero eta egitarau oparagoa dauka jai honek, eta aurten gaiaren inguruko ekitaldiak 23an hasiko dira. Jaiaren aurreko domekan, hilak 19, Gorka Menendezek lagunduta bedar bila joango dira interesauta dagozan guztiak, bedarrokaz edabeak eta pozoinak egin ahal izateko.

"Eguzkia eta lurra, sua eta ura, sendabedar eta pozoiak, bizitza eta heriotzea, sorginak, aztiak eta belagileak, inkisizinoa, agotak, kaskarotako, mairu eta ijitoak... horreek guztiak saltsa aberatsa egiten dabe aurtengo euskal jaiaren dastatzeko" antolatzaileen arabera.



Areatzako Euskal Jaiko igazko irudia.

BAGILAK 19, domekea

10:00etan, Areatzako Parkean, sendabedarrak batzean joateko urteera Gorka Menendezen azalpen eta laguntzeagaz.

BAGILAK 23, San Juan gaua, eguena

Zubizarra sua eta sardina jana. Musikea, bertsoak, kantu zaharrak...

BAGILAK 24, barikua

19:00etan, Toti Martinez de Lezea idazleak Akelarrearen inguruko berbaldea emongo dau Udal Aretoan.

BAGILAK 25, Euskal Jaia

Goizean, alde zaharrea. Azokea: Aurten sendabedar, edabe eta pozoinak gaiaren inguruan, Gorka Menendez Arratiako sendabedaren ikertzailea; Bizi Lore, lorak eta haziak; aromai buruzko tailerra; sauko tailerra; infusinoak eta likoreak egongo dira.

Ganera, artisautza eta bertako produktuak be egongo dira azokan.

11:00etan, Jaiari hasierara Arkaitz Estiballes Bizkaiko bertsolari txapeldunak eta Areatzako jantza taldeak emongo deusie.

12:00etan, Artziniegako Sanca alkartearen eskutik, antxinako burukoaren erakusketea eta Erdi Aroko jantzien desfilea. Modeloak billaroztarrak izango dira.

13:00etan, Kale antzerkia: *Inkisizinoa*, billaroztarrak antzeztuta. Azokan dagozan sorgin, belagile, heretiko, agote, petrikilo eta abarrik burdi ganean igo eta plazan epaituko dituez. Inkisidoreak danak kondenauko ditu.

15:30ean, Herri bazkaria.

20:00etan, Erromeria ERDIZKA LAUETAN taldeagaz.

MEMORIA HISTORIKOA

Arratiarren erresistentziaren testigantzak jaso gura ditu Euskal Memoria Fundazioak

Bagilaren 30ean, arrastiko 19:30ean, Txema Uriarte historiagileak Euskal Memoria Fundazioa aurkeztuko dau Igorreko Kultur Etxean.

Erredakzioa

Uriartek geure memoria historikoaren berreraikuntzaren ganean egingo dau berba. Eta "errepublikatik hona edo guda ostetik hona, erresistentzia edo errepresinoa jasan daben Arratiako personai" omenalditxua egingo deusez ekitaldi horretan.

Euskal Memoria Fundazioa, Dokumentazio Zentru bat izateko proiektuagaz jaio zan orain dala urte bi. Sortzaileen helburua, 1931tik honako testigantzak jaso, eta testigantza eta material horreen bidez historia dokumenteteta da.

Arratiako testigantzak

Egiten dabizen beharra aurkezteaz ganera, "jenteari laguntza

eskutuko deusagu, proiektua bera sostengatzeko eta arratiarren erresistentziaren dokumentazioa jasoteko. Guk badakigu material hori jentearen buruan dagoana, baina hori sozializatea gura dogu" azaldu deusez BEGURI Txema Uriarte Fundaziokoak.

Dokumentazio Zentruaren materialak modu bitan ipiniko dabez jentearen aurrean. Alde batetik, jasoten daben materiala webgunean ipiniko dabe. Eta bestetik, papelean be jasoko dira emoitzak. "Gure babesle asko jente edadetua da, ez daukana ohiturarik Interneten ibilteko. Horregaitik, urtero liburu bat egingo dogu, urteko lanaren laburpen moduan. Eta aldizkari bi" dino Uriartek.



Arratia Konpainia Igorreko beheko plazan.

IBILALDIA

Dimako bazterrak ezagututeko ibilaldia hilaren 25ean

Erredakzioa

Bagilaren 25ean, zapatuz, Dimako historia eta ondarea ezagututeko aukerea eukiko dabe Ganoraz Euskera Taldeak antolatutako ibilbidea egiten dabenak.

Urtero sanjuanetan egiten dan "Gure arbasoen arteko gure inguruak ezetuten" ekimenaren bederatzigarren edizioa da aurtengoa; beti be helburu beragaz: inguruko aberastunaren barri emotea. Holan ba, goi-

zean zehar herriko ondare arkitektonikoa ezagututeko aukerea izango da; bai eta bertako historia ofizialaren eta mitoen inguruko hainbat kontu be.

Autoz eta oinez

Ibilbidea oso modu lasaian egiteko dago planteautu; izan be, tarteka kotzez, tarteka oinez egingo da. Goizeko txangoaren ostean, pintxo-jana izango da (jaten geratzen diranak 5€ ordainduko dabe). Urtero lez, ibilbideko gidaria Arratia Institutuko

irakaslea dan Angel Larrea historia-laria izango da. Haren eskutik, parte hartzaileak herri horretako bestelako alderdiak ezagutuko dabez. Ibilaldia Ugarana plazatik abiatuko da goizeko 09:00etan.



Jentilzubi.

LEHIAKETEAK

Laburmetraje sariak

Erredakzioa

Bagilaren 12an San Antonio jaietako laburmetraje lehiaketara aurkeztutako lanak ikusi ahal izan ziran Igorreko Kultur Etxean. Polito bete zan Lasarte Aretoa. Jada klasiko bihurtuten dabilan lehiaketan bost laburmetraje proiektu ziran, honeetako bat lehiaketatik kanpo. "Iraganeko koloreak" izan zan irabazlea; adin txikikoen kategorian, barriz,

"Naturaren argia". Azken honek publikoaren saria be eskuratu eban; boto bakarreko alde atera eutsan "Gauetan barrena" Lurrarriek Gazte Asanbladearen lanari. "Inoiz ez da berandu" eta Igorreko ludotekak lehiaketaz kanpo aurkeztutako "Loreak falta dira" lanak be ikusi ahal izan ziran.

"Kultur etxeko aretoa ia beteta ikusteak poztu egiten gaitu, baina datorren urtean be inizatiba honek jarraipena izan dagian, danon artean elikatu behar dogu lehiaketea. Koadrila, alkarte edo norbanakoak parte hartutera animau gura doguz" dino antolatzailea dan Igorreko Euskera Planeko partaide batek.

MUSIKEA

Kantaldia Igorren ume kantuak eta AK-37ren disko barria aurkeztuteko

Arratia Institutuaren inguruko ekimen bik sortutako CD bi aurkeztuteko kantaldia izango da Igorreko Kultur Etxean, hilaren 24an, arrastiko 21:00etan.

Erredakzioa

Disko biak "Geure Berbategie" proiektuaren barruan dagoz: *Umeen zentzune, etxean entzune* ume kantuak, eta AK-37 taldeko *Hurrekoa Hurrean* diskoa, hain zuzen be.

Ume kantuak berbiztuten

Umeen zentzune, etxean entzune CDak 21 ume kanta batzean

HERRI MUSIKA KONTZERTUA

Umeen zentzune etxean entzune,
diskoaren aurkezpena Arratiako herri guztietako gurasoen eskutik



Ostean **Hurrekoa hurrean, AK-37**
taldearen hirugarren diskoaren aurkezpena



Lasarte Aretoa, Igorre Bagilaren 24an, barikua, 21:00etan

Gurasoak eta AK-37k kontzertua eskeiniko dabe.

dauz eta kalean da daborduko. "Geure Berbategie", Arratiako euskerea errekueretako Angel Larrea eta Juan Rekalde institutuko irakasleak gidatutako proiektuaren barruko ekimen bat da *Umeen zentzune, etxean entzune* diskoa. Hiru mila kopia egin dira eta eskolaumeen gurasoak grabau dabez kantuok. Ume jaiobarrien gurasoi oparitutako deutseez CDak eta Lehen Hezkuntzako eskoletan be banduko dira.

"Herri guztietako gurasoak igoko dira taulara talde bakotxak kantu bana kantetako. Dimakoak izan ezik. Honeek kantu bi kantuok dabez, Dimako Guraso Elkartearen 25. urteurrena dala eta, kantu bat sortu dabe eta" azaldu deutso BEGITURI Juan Rekalde irakasleak. Diskoa aterateko Arratiako Udalen Mankomunitadeara eta Zertu Kultur Elkarte eta Ganoraz Arratiako Euskera Taldearen laguntzea euki dabe.

Arratiako Konpainiaren disko barria

AK-37 edo bestela esanda, "Arratia Konpainia" izeneko proiektua orain dala urte batzuk sortu zan, Arratia eta inguruotako argitaratu bako kantu eta koplak batzeako asmoz. AK-37 proiektua gazteak eta antxinako kultura musikearen bidez konektetako sortu zan.

Izen honegaz jo eta kantetan daben gazteak, urtero-urtero aldatzen doaz. Izan be, talde hau Arratia Institutuko Bigarren Batxilergoan dagozanak gauzatuten dabe. Aurten, Naiara Zurinaga, Irati Urien, Iraia Inunziaga, Ane Gorostiaga eta Josu Pias ikasleak eta Ibon Ordoñez, Xabi Valle eta Juan Rekalde irakasleak osotuten dabe AK-37 taldea. Taldearen hirugarren diskoa da aurkeztuko daben *Hurrekoa Hurrean*. Disko hau bederatzi abestiz osotuta dago, bai gerra denporakoak eta bai bestelakoak. Tartean, "Durangon bazkaldute" eta "Eleuterio".

"Ekitaldian disko honetako kantu batzuk eta aurreko disko bietako beste batzuk kantuok doguz. Helburua diskoa promozionetea eta jenteak kantuok gogoraratzea da" azaldu dau Naiara Zurinaga AK-37 taldeko kideak.

DUNBA

Animalia bako zirkuaren alde



Areatzako eskolako ikasleak.

Areatzako eskolako ikasleak

Areatzako LH2ko ikasleok zirkuaren proiektua landu dogu. Besteak beste hauxe jorratu dogu: zirkuaren historia, ikuskizunaren emoleak edo protagonistak, zirkuo eta zirkuaren eskola eta animaliak: euren bizitza eta heziketea, eta emondako tratua.

Ia ia danok joan gara, noiz edo noiz, zirkuera eta bertan ikusi dogun ikuskizunagaz gozatu egin dogu. Bardin da heldua izatea,

umea izatea edo gaztea izatea eskeintzen deuskuen ikuskizuna aprezietako: ekilibristak soka ganean, magoak, akrobatak, pailazoak, malabaristak, mimoak... eta animaliak: elefanteak, lehoiak, tigreak... animalia basatiak.

Animali honeek euren bizitzagaz zerikusirik ez daukien gauzak egitera behartuta dagoz, eurentzat guztiz artifizialak diran jarretan agertuten deuskuez.

Zirkuetako elefanteen, lehoien, tigreen eta abarren bizi-

tza zigor fisikoan, bildurrean eta gatibutasunean oinarritzen da. Holango zirku-erakustaldiak egiteko animaliak makilaz, latigoz edo deskarga elektrikoak erabiliz entrenetan dabez. Gainera, ur barik, janari barik eta isolamentuaz zigortuten dabez. Gatibualdiak estres fisiko eta mentala sortuten deutsez; euren arteko agresibitatea eta personakanakoa handitzen da eta aspertutea, bizitza laburtutea eta errezago hiltza eragiten dau.

Lehoi batek ez dau saltorik egingo suzko uztailek edo elefante bat ez da ipiniko hanka bi ganean bere borondatez holango teknikak erabilten ez badira.

Bizitza guztia kaiola baten barruan emoten dabe, mobidu barik, kontuan eukinda basatiak dirala eta asko mobidu behar dabela.

Ekintza gogor honeek izugarriko oinazea, tristezia eta egonezina sortzean deutsez animalia eta txarto tratauak ez izateko daukien eskubidea baztertzen jakie.

Malabaristak, pailazoak, magoak eta beste atrakzioak daukiezan zirkuetara joan gaitez, artisten abilezian oinarritzen diran zirkuetara joan gaitez, benetako artea defendatu ahal

izateko.

Ez gaitez hurbildu animalianako tratua erabilten daben ikuskizunak ikustera.

Animaliez euren ingurune naturalean gozatu dogu, tratua txarrik emon barik edo kalterik egin barik.



Inauterietan, 3. eta 4. mailakoak zirku gaia jorratu eben.

AGENDEA**BAGILAK 16
UBIDE**

19:00etan, ardao dastaketea Urbide alkartokian.

**BAGILAK 18
ARRATIA**

Urkiolara errogatibea. Ikusi 6. orrialdea.

**BAGILAK 19
AREATZA**

10:00etan, Sendabedarrak batzean joateko urteerea Gorka Menendezegaz parkean.

BEDIA

10:00etan, XI. Eskulangintza eta Elkagaien Azokea.

**BAGILAK 23
ARANTZAZU**

19:00etan, sardina jana. 21:00etan, San Juan sua.

AREATZA

Zubizarran sua eta sardina jana. Musika, bertso...

BEDIA

Sanjuanak. Egitaraua 6. orrialdean.

DIMA

Sanjuanak Oba auzunean.

IGORRE

Sanjuanak San Juan auzunean.

LEMOA

09:00etatik 10:30era, informatika eta mekanografia ikastarorako izena emoteko azken eguna. Liburutegiko informatika gelan.

16:30ean, ikasturte amaierako festa:

puzgarniak eta merienda, eskolan.

19:30etik aurrera, Gaztebeak antolatuta San Juan sua, jatekoa eta ipuin kontalaria: Antton Inusta.

UBIDE

San Juan jaiak. Egitaraua 5. orrialdean.

ZEANURI

Altzuagako jaiak. Egitaraua 7. orrialdean.

ZEBERIO

San Juan suak auzuneetan.

BAGILAK 24**AREATZA**

19:00etan, Toti Martinez de Lezeak

"Akelarrea" berbaldia Udal Aretoan.

IGORRE

19:30ean azken barikua, Eberatek antolatuta

**San Juan egunaren inguruan sua eta akelarrea**

Akelarreak ospatuko dira gurean solstizioaren inguruan. Sanjuan bezperan Ubiden sua eta akelarrea egingo dabe 20:30etik aurrera. Eta aurtengo Areatzako Euskal Jaiak be akelarrea dauka gaitzat. Hilaren 24an, Toti Martinez de Lezeak honen inguruko berbaldia emongo dau Udal Aretoan arrastiko 19:00etan. Hurrengo egunean Areatzako kaleetan, kale antzerki baten bidez azokan egongo diran sorgin, belagile, agote, petrikilo eta abarrak, hatzeman, burdian igon, plazan epaitu eta Inkisizinoak kondenuatu egingo ditu.

presoen aldeko konzentrazioa Kultur Etxe parean.

21:00etan, Umeen zentzune, etxean entzune eta AK-37ren Hurrekoa Hurrean CD-en aurkezpena Kultur Etxean.

BAGILAK 25**AREATZA**

Euskal Jaiak. Egitaraua 12. orrialdean.

IGORRE

Kino mendi taldeak urteerea Artain-Mugarra-Artain eta babajana.

DIMA

09:00etan plazan, "Dimako baztarrak ezetu" Angel Larregaz, Mitoak, historia... Ganorazek antolatuta.

LEMOA

Sanpedroak Elorriaga auzoan. Egitaraua 7. orrialdean.

BAGILAK 26**ARTEA**

08:00etan, Arkikutak antolatuta, Auzonik Auzo ibilbide luzea (35 Km). 08:30ean, ibilbide laburra (17 Km) plazan.

DIMA

10:00etan, Artisau eta Nekazal Produktuen Azokea.

BAGILAK 27**LEMOA**

16:30etik 19:30era, garagamilaren 8ra arte, udalak antolatutako udaleku irekiak ludotekan.

ZEBERIO

Garagamilaren 8ra arte udaleku irekiak.

BAGILAK 29**ARANTZAZU**

San Pedro jaiak. Egitaraua 7. orrialdean.

DIMA

San Pedro jaiak. Egitaraua 5. orrialdean.

ZEANURI

Sanpedroak Undurragan.

GARAGARRILAK 2**AREATZA**

08:00etan, Parkebetik urteerea Ubide-Dulau-Aburi-Saldropo.

IGORRE

18:00etan Igorreko X. Aurreko Txapelketea, Mobogarek antolatuta Kultur Etxean.

IRAGARKI LABURRAK**SALDU****SALTZEAN DOT**

Egurrezko sehaska barri-barria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, koltxoia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonora 635 007 632.

SALTZEAN DOT

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gibi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

ETXEA SALGAIAreatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefonora: 646 448 869.**LAN ESKEINTZA
ESTETIZISTEA BEHAR DA**

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635

704 739 telefonora deitu.

EROSI**EROSTEN DOT**

Umeak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukuzuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

DANERIK**APARTAMENTUA ALOKAIURUAN**

Suacesen apartamentua alokairuan. Asteburu, asteburu zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonora 677 497 985.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Igorreko Udalak emondako *Fasioren Mendea* CD-DVD-Liburua.

Santi Gutierrez (Dima)
Roberto Salazar (Igorre)



2

Baga-bigak emondako Borja Estankonaren CD bana.

Nerea Basterra (Arantzazu)
Joserra Undagoitia (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Gomuta, gogo. 2.- Berilioa. Itsas zabalean arraina hartzeako tokia. 3.- Bokala. Urrea. Emea ez dana. 4.- Emakume zahar. Letra bat. 5.- Abade egin. 6.- Nitrogenoa. Xabier... euskal poeta eta kantaria. 7.- Talioa. (Atz.) Gerundio atzizkia. Bokala. 8.- Atal. Tulioa. 9.- Gabonila.

GOITIK BEHERA

1.- Dima udalerriko auzoa. Itxura. 2.- Musika nota. Hotza adierazoten dau. Langile Abertzaleen Batzordea. 3.- Oxigenoa. (Atz.) Kontserbak gordetzeko ontzia. Letra izena. 4.- Enbidia. 5.- Umeen berbetan, mosua. Justu-justuan. Bostehun erromatar. 6.- Euzko Langileen Alkartasuna. Teluroa. Birritan, hodi. 7.- Azal. Ume bat izan dauan andrazkoa.

V	U	D	N	E	B	A	V	Z	8
W	I	L	I	T	Z	8			
V	Z	L	T	Z	8				
E	T	L	E	N	9				
U	I	Z	I	V	A	4			
R		S	T	A	V	4			
A	R	A	U	A	3				
Z	B	E	K	A	L	A			
I	O	R	O	I	P	E			
N									
6	7	4	5	6	7	8			

Topau munduko zazpi bataila ospetsu.

S	A	N	K	I	N	J	I	N	A
O	A	G	O	T	A	R	A	S	P
I	L	T	A	U	B	O	R	E	Z
M	A	E	Z	T	U	O	X	M	O
O	S	R	P	O	T	L	A	B	M
K	A	M	I	A	T	R	U	G	A
E	G	O	L	A	N	E	J	A	R
L	A	P	I	Z	E	T	A	J	O
G	O	I	K	U	R	A	O	D	E
U	R	L	I	K	E	W	S	O	Z
A	M	A	R	A	T	O	N	I	T
X	E	S	W	H	F	T	R	M	A
I	R	T	I	L	O	P	I	R	T
Z	A	M	E	J	T	X	O	R	O
B	O	D	E	G	I	K	O	T	A

AKMIKO

Iman Olatu



<p>Recreativos Gubi S.L. Angel Larrea</p> <p>Zornotza Tfnoa 649 86 95 36</p>	<p>Ordie</p> <p>FOTOKOPIAK - PAPERDENDA</p> <p>L. Agirre, 7. 48140 Igorte (Biskai) Tfnoa: 94 632 64 78</p>	<p>Umeen moda 0-20 urte</p> <ul style="list-style-type: none"> Bebeli Ray Aranda Akr Gutsuiter Arandiga Gardale Leiz Massana <p>sein</p> <p>LEHENDAKAI AGIRRE, 27 • 946 319 296 seinmoda@hotmail.com</p>	<p>GARANTXE Autoeskola</p> <p>TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ</p> <p>Balmusak 41, A, BTE, 8</p> <p>Lehendakai Agirre 31 Tfnoa: 94 673 71 32 48140 IGORTE (Biskai) garantxe@euskalnet.net</p>	<p>ARRATIA AUTOESKOLA</p> <p>karmela euskaraz zein erdaraz</p> <p>Garbe, 10 - 48140 Igorte (Biskai) telefonoa 94 631 54 31, Faxo 94 673 70 83 e-posta: urakua@euskalnet.net</p>
<p>Beer & Edariak s.l.</p> <p>HEINEKEN SOLARES</p> <p>Polig.Mendieta, n° 3. 48530 LEMCIA, Euzkadi Tel. 609 482 830 fax 609 296 727</p>	<p>ALKOHOLIKO ANONIMOAK</p> <p>ARRATIAKO TALDEA</p> <p>Arazoak alkoholagaz? Arazoak badaukazuz, lagundu ahal zaitugu</p> <p>Igorre</p> <p>BATZAR EGUNAK: epautesak 20etatik 22etara Udaltzarke arropetan EPA-ko lokalak</p> <p>KONTAKTATZENO TELEFONOA: 690 139 044</p>	<p>BIXER TABERNA</p> <p>Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO</p>	<p>axular</p> <p>Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92 axularke@gmail.com</p>	<p>NAIARA Hartz Klinika</p> <p>Lehendakai Agirre, 19 48140 Igorte 94 631 52 26</p>
<p>AKESOLO, S.A.</p> <p>GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK</p> <p>Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 40 14 IGORRE BIZKAI</p>	<p>INCOESA</p> <p>Tel. 94 631 32 75 Faxa. 94 631 37 66 Bidekoetxe 18 48.390 Bedia</p>	<p>Bar Restaurante Montero</p> <p>Eguneko menua euskal sukaldaritza, sukaldaritza bolibiarra eta brasildarra</p> <p>Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653</p>		

IRATI ASTONDOA

"Alemaniatik Esloveniara, segan"

Trontzan, segan, bertsotan, pelotan... zertan edo hatan, baina beti zeozertan. Holangoxa da Irati, erderaz neska "polifazetikea", euskeraz paramenbakoia. Bildurrik ez dau Iratik agiri bere esanetan ezta bere zereginetan.

Alemaniatik etorri barri eta Eslovenian izango dan Europako sega txapelketarako sailkatzeko gogor entrenetan harrapatu dau BEGITUK. Herri kirolaz, politikeaz eta bertsolaritzeaz egin dau berba BEGITUK Astondoagaz.

Irati Urien**Irati, zelan sentiduten zara? Ondo zagoz? Badakigu Alemaniatik ibili zarala eta pepinoa jan ei dozu...**

Kar kar kar. Jente askok galdetu deusta eta adarra jo be bai beste hainbestek. Alemaniarra heldu ginanean hoteleko janaria nahiko baragarria zan eta guk itzelezko gosea geunkan. Pepinoa egon zan eta niri asko gustetan jatanez jan egin neban. Orduan, geugaz bertan egoan Gipuzkoako batek gaixotasunarena kontau eban baina nik ez neutsan sinistu. Hona bueltatu ginanean enterau nintzan pepinoa dala eta ez dala hainbat hil zirala. Halanda be ez nintzan estutu.

Alemaniarra segan egiten joan zinan. Zelan hasi zinan kirol horretan?

Txikitatik gustau izan jata bai segan eta bai trontzan ibiltea. Ambiente horretan bizi izan naz, aita horretan ikusi dot beti. Etxean entrenetan dot eta aurten inoz baino gehiago ganera. Egunero entrenetan ez banaz be beti basora edo airineketan egitera joaten naz.

"Herri kirolari moduan asko poztuten naz Arratiako gazteak aspaldian egiten dabizen desafioakaz. Esan lei atzera dabilala lehenagoko ilusinoa eta indarra biztuten"

Erakustaldiz erakustaldi eta txapelketa batetik bestera ibiltzen zara.

Urte birik behin izaten da Europako sega txapelketea. Lehenengo kanporaketea egoten da eta nik momentuz bi jokatu eta nire kategorian irabazi egin dodaz biak. Finala hilaren 18an da Baliarrainen (Gipuzkoa). Halanda be Europakorako pasea badaukat ia; Eslovenian izango da, abuztuan.

Trontzeari jagokonean, aurten erakustaldiak bakarrik egin dodaz, txapelketarik ez. Baina datorren hilean txapelketa mixtoa egingo da, hainbat arratiarrek parte hartuko dau bertan.

Nondik ibili zara segan?

Alemaniar leku askotan egon naz. Austrian be bai, Asturiasen be egon nintzan gabonetan eta hilaren 25ean banoa Asturiasera barriro.

Pentsetan dogu honeek kirol tradizionalak geuk bakarrik daukaguzala baina ez da holan. Beste leku askotan be, gure moduan, indartu eta berreskuratu guran dabiz. Nik Alemanian ez dot ikusi pisurik ee, paisajea gure portalearen modukoia izan da, solo bat.

Politikarako bildurrik ez? Gaztea izan arren aurkeztu egin zara Bilduko ordezkari moduan.

Bildurrik bape be ez. Ez dot aituten zelan azkenengo urteotan hainbeste jenteren berbea errespetatu ez dan; baina zorionez hor gagoz, entzun jaku eta behar egitera goaz.

Euskal Herrian eta nire herrian be bai, Zeanurin, aldaketa bat behar dala pentsetan neban. Orduan, lan egiteko prest nengoanez eta nagoenez, aurkeztu egin nintzan.

EAJ-PNV-k 416, Bilduk 415. Zer iruditu jatzun BEGITUKO aurreko alean argitaratu zan horren ganeko komikia?



Leidu nebanean barreka hasi nintzan zantzo baten. Azken baten gauzak holan dira eta umorez hartu behar dira. Bat gitxiago ateratearren ez dogu galdu, aurrrera pausu handi bat emon baino. Politikan gauzak ondo egin ezkerro, emoitzak egongo dira lehenago edo beranduago.

Kiroletara bueltauta, praktike-tan dozu besterik?

Eskolan beti esku-pelotan jokatzen genduan eta bederatzi urtegeaz apuntau egin nintzan. Teo Aranak animetan ninduan. Apuntau egin nintzan eta mutil askori egurra emonda nago. Hamai urte neukazanean oster,

itxi egin neutsan peloteari. Hala eta guztiz be, gaur egun neskok hamalau urtetararte baino ezin geinke jokatu pelotan eta oso txarto deritxat horri.

Rugbyan be banabil ibili baina aurten behar batzuk dirala eta, ezin izan naz entrenamentuetara joan. Datorren urtean % 100ean parte hartuteko gogoz nago.

Zelan daroazu bertsolaritzea?

Gustauko litxakit bertsolaritzeari denpora gehiago emotea. Arratiako txapela janztea gurako neuke. Neska guztiak animetan dodaz parte hartutera, holan, nik jantzi ez arren, akaso neskaren batek jantziko leuke.

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskera eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€

Moztu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48942 Artea